

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2021EKO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

Ogasun eta Ekonomia Sailak eskatuta egin da txosten hau, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitutako eskumena erabiliz.

Txostenaren helburua da, batetik, 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaz onartutako jarraibideetan agindutakoa behar bezala betetzen dela egiaztatzea eta, bestetik, hobekuntzak proposatzea. Jarraibideak, zehazki, genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzea da eskatutako txostenak aztertzen duen lege-aurreproiektuaren helburua.

Hortaz, xedapen arautzaile orokor batez ari gara, eta, lehenengo jarraibidearen 2.1. apartatuan ezarritakoarekin bat eginez, generoaren araberako inpaktua ebaluatu behar zaio. Horri begira, generoaren araberako eraginari buruzko txostena igorri du arauaren organo sustatzaileak, 1. eranskinean jasotzen diren baldintzetan eta lehenengo jarraibidearen 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Egiaztatu dugu bete egin direla 4/2005 Legean aurreikusitako izapide formalak eta generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko jarraibideak. Horrenbestez, generoaren araberako eraginari buruzko txostenaren edukiari eta hura egiteko prozesuari dagokienez, honako ohar eta proposamen hauek egin ditugu:

Aipatutako legearen aurreproiektuaren generoaren araberako eraginari buruzko txostenaren edukia baloratu baino lehen, aurretik zenbait gogoeta egingo ditugu

prozesuari berari, egungo egoerari eta prozesua egiteko metodologiari buruz, garrantzitsuak iruditzen baitzaizkigu:

Lehenik eta behin, garrantzitsua da nabarmentzea aurrekontuetan ikuspegi-generoa sartzea zenbait fase dituen prozesua dela, eta lidergo argia, etengabeko hausnarketa eta Eusko Jaurlaritzako sail guztien elkarlana behar dituela. 2021erako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak prestatzeko prozesuan, ezin dugu ahaztu COVID-19aren pandemiak eragin eta egun gauden krisi sanitarioa, ez eta ekarri dituen ekonomia-eta gizarte-ondorioak ere. Diagnostikoan ikusten den bezala, pandemia eta hura kontrolatzeko hartu diren neurriak emakumeetan eta gizonetan izaten ari diren eragina desberdina da; beraz, bizitzen ari garen errealitate berri horren genero-inpaktua aztertu behar dugu, ezinbestean, ikuspegi intersektorialetik, erantzun koordinatuak, integralak eta eraginkorrak emateko eta, horrela, ondorio negatiboak neutralizatu eta berdintasunaren bidean aurrera egin ahal izateko, inor atzean utzi gabe.

Hori dela eta, gure ustez positiboa da Ekonomia eta Ogasun Saila genero-inpaktuari buruzko txosten hau prestatzeko lanetan izaten ari den lidergoa; hala, aurreko ekitaldietan Jaurlaritzako sail guztiekin elkarlanean hasitako lan-prozedurari jarraikiz, aukera ematen du hobekuntzak sustatzeko lan-prozeduretan, *inor atzean ez uzteko* politika publikoen plangintzan eta ebaluazioan, eta, horretarako, egungo testuinguruan eremu guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna defendatzeko.

Sailaren lidergo horretan, nabarmentzekoa da sailarentzako berarentzako laguntza teknikoa eskaintzeko baliabide ekonomikoak gaitu izana, betiere Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko prozesuan aurrera egiteari begira. Laguntza hori UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearen Ekonomia Aplikatua I Sailak ematen du, eta, hura gauzatzeko, aholkularitza ematen da genero-ikuspegia duten aurrekontuetarako metodologia diseinatzeko.

Era berean, ezin dugu ahaztu nolako garrantzia duen sailetako eta erakunde autonomoetako berdintasuneko administrazio-unitateen eginkizunak abian jarritako lan-

prozesuetan, ez eta horien laguntza, aholkularitza eta inplikazioa ere gaur arte eginiko faseetan. Horren harira, esan behar da 2021erako berdintasuneko bi administrazio-unitate sortzea aurreikusten dela; bata, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean, eta bestea, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian, honako hauek betez: otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 11. artikulua eta Eusko Jaurlaritzako sailen berdintasun-politikak sustatzeko eta koordinatzeko ardura duten administrazio-unitateak eta horien erakunde autonomo nahiz ente publikoak arautzen dituen azaroaren 27ko 231/2007 Dekretuaren 3. artikulua. Hala ere, esan behar da oraindik erakunde batek unitate hori sortu behar duela, 213/2007 Dekretuan xedatutakoa betetzeko: ETS-Euskal Trenbide Sarea.

Genero-ikuspegia duten aurrekontuei buruzko prestakuntza espezifikoa beharrezkoa da eta, aurten arte, IVAPen bidez eman da; aurten, ezin izan da eman, pandemiaren ondorioz. Hala ere, inpaktu-txostenak dakarren bezala, egindako ibilbidea eta aurkitutako zailtasunak aztertu ondoren, 2021ean borondate berritzailea duen estrategia diseinatuko da, aurrekontu orokorretan genero-ikuspegia txertatzeari bultzada emateko. Estrategiak horrek beharrezko den prestakuntza egokia hartuko beharko du barnean, egiazki ezartzeko.

Metodologia dela eta, Ekonomia eta Ogasun Sailak, aurrekontuak egiteko aurreko administrazio-prozedura arruntean bezala, sail, erakunde autonomo eta partzuergo guztiei, EITBri eta Osakidetzari eskatu die txostena bidal dezaten, eta, bertan, 2021eko aurrekontuetarako estrategia globala eta jarduteko lehentasunak azaltzeko. Aurreko ekitaldian bezala, eta denboran segimendua egiteko, eskatu zaie labur azaltzeko zein jarduketa egingo dituzten EAEn Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren esku hartzeko III. ardatzaren esparrukoetatik («Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak»), eta zein soldata-arrakalaren aurka, 2021eko aurrekontuekin.

2021erako EAEko aurrekontu orokorrak egiteko oinarrian izan diren jarraibideak direla eta, aipatu beharra dago hazkunde inklusiboaren alde egiten dutela, gizarte- eta ingurumen-justiziako irizpideetan oinarrituta, eta lehentasunezkoztat jotzen du ongizate

inklusiboari, trantsizio energetikoari eta eraldaketa digitalari ekitea. Era berean, eta aurreko ekitaldiko jarraibideekin koherentzian, eutsi egiten dio soldata-, gizarte-, genero-, belaunaldi-, teknologia- eta lurralde-arrakala txikiagotzeko/ezabatze konpromisoari. Hori horrela, txostenean gogorarazten da genero-arrakalak zeharkakoak direla.

Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, ontzat ematen dugu genero-ikuspegia gobernuaren aurrekontu-jardueran txertatzeko egindako lana, konpromiso eta lidergo politikoa nahiz aurretik aipatutako eragileekin lan teknikoa egiteko estrategiak ere sendotzen baititu. Horrek guztiak premia berriak identifikatzeko aukera eman du, baita etorkizunean berrikuntza-asmoko estrategia bat diseinatzen hasteari ekiteko ere; aurrekontu orokorrak egiteko administrazio-prozeduran genero-ikuspegia integratzeari bultzada emango lioke, eta ezin da ahaztu etengabeko ikaskuntza- eta hobekuntza-prozesua dela.

Generoaren araberako eraginari buruzko txostenari dagokionez, komenigarria zatekeen denbora gehiago izatea txostenaren edukia sakonago aztertze. Nolanahi ere, honako ohar hauek egin dira:

- **EAEko diagnostiko sozioekonomikoari** heltzen dion apartatua dela eta, inpaktu-txostenak Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeetan eta gizonetan osasungintza-, gizarte- eta ekonomia-krisiak eragindako inpaktu bereizia aztertzen du, haiek baitira EAEko administrazio publikoen politiken xedea. Apartatu honetan azaldutako emaitzak abiapuntua dira aurrekontu-programek EAEko emakumeen eta gizonen bizi-baldintzetan duten intzidentzia ezagutu ahal izateko; alegia, abian diren jarduketek zein neurritan ahalbidetzen duten emakumeen eta gizonen arteko desberdintausnaren egiturazko fenomeno unibertsal hori ezabatzea.
- Hori horrela, esan beharra dago aurkeztu den inpaktu-txostenak eskaintzen duen diagnostiko bereziak ikusarazi egiten dituela gizarteko genero-arrakala nagusiak, bai eta COVID-19a haietan izaten ari den inpaktua ere; alegia, COVID-19a emakumeetan eta gizonetan izaten ari den inpaktu diferentziala, osasunari,

zaintza-lanari, lan ordainduari, emakumeen aurkako indarkeriari, pobreziari eta bazterketari eta erabakiak hartzeko parte-hartzeari dagokienez.

Sailen gastuari eta haien aurrekontu-programei buruzko azterketari dagokionez,

EAEko Aurrekontu Orokorrari buruzko datu sailkatuak eman dira (atalak), aztertutako aurrekontuari buruzko datuak (sailka), bai eta Osakidetzako eta EITBko aurrekontuak ere. Aztertutako **aurrekontua** honela banatuta dago 2021ean:

- **Eusko Jaurlaritzako sailen** aurrekontua (1.-12. atalak, EAEko administraziooko beste ente batzuei egiteko transferentziak kenduta): 5.911.012.394 €.
- Eusko Jaurlaritzako sailei atxikitako **erakunde autonomo eta partzuergoen** aurrekontu osoa: 1.135.295.000 €
- **Osakidetzaren** administrazio-aurrekontua: 3.321.947.734 €
- **EITBren** administrazio-aurrekontua: 162.684.905 €

Txosten honetan **aztertutako aurrekontua** EAEko **aurrekontu osoaren % 85 da**, aurreko urtean baino 1,3 puntu gehiago.

Inpaktu-txostenean aipatzen da hurrengo fase baterako geratzen dela 00. atalaren eta 51. ataletik 99. atalera bitartekoen eta gainerako entitate, fundazio eta sozietate publikoen azterketa egitea.

Era berean adierazten da COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriei buruzko **1229 programa** ez dela aztertu P-GEN inprimakiaren bidez, sailarteko izaera duenez.

Aurrekontu-programak generoarekiko duen lotura dela-eta, txostenak zera azpimarratzen du: aurrekontu-programen aurrekontuaren % 99,8 jo dira generoarekin lotutako gaitzat. Datu horrek agerian uzten du aurrekontuetan ez dagoela genero-neutraltasunik programen ehuneko oso handi batean. Ehuneko horretatik, % 98,5ean generoari eman zaion garrantzia ertaina-altua izan da, 2020ko aurrekontuetan baino bi puntu eta erdi gehiago.

Garrantzia gutxikotzat jotzen diren aurrekontuak gehienbat Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean eta Ekonomia eta Ogasun Sailean daude

Soldata-arrakalaren aurka borrokatzeko identifikatutako 2021eko aurrekontua dela eta, emandako datuen arabera, EAEko aurrekontu orokorraren % 0,67 da eta Administrazio Orokorraren (1.-12. atalak EAEko administraziooko beste ente batzuei egiten zaizkien transferentziak aparte), haren erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontu aztertuaren % 1,18; pasa den ekitaldian, % 0,83 eta % 1,5 izan ziren, hurrenez hurren. 2020ko ekitaldiaren aldean egon den murrizketaren motiboak honako hauek dira: 2020an soldata-arrakalaren aurkako talka-plana amaitu izana, 2021eko aurrekontuetarako soldata-arrakalaren aurkako 2025erako ekintza-plana prestatu eta ezarri izana, eta eremu pribatuan gurasotasun-baimenak parekatzeko laguntzak murriztu izana, Espainiako Estatuak urtariletik aurrera emango duen 16 asteko baimena ezarri delako.

Indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko ezarritako 2021eko aurrekontuari dagokionez, berriz, handitu egin da 2020aren aldean, 2 milioi euroan; Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorraren % 0,2 da¹, eta Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontu aztertuaren % 0,36.

Genero-ikuspegiarekin planifikatutako jardueri eta sailek 2021eko aurrekontuen kontura garatuko dituzten eta **genero-ikuspegiarekin diseinatzen ari diren jardueri dagokienez**, esan behar da aztertutako aurrekontuaren % 16 direla, Osakidetzarena eta EITBrena alde batera utzita.

Diseinuan genero-ikuspegia sartzeko prozesuan dagoen aurrekontuaren ehunekoa nabarmen altuagoa da, guztizkoaren % 81 (1.132.799.282 €); alegia, 913.256.999 €. Txostenean nabarmentzen da aurrekontuen prozesu honetarako zorrotzago jarraitu zaiela plangintza genero-ikuspegiarekin aztertzeko erabili diren irizpideei.

¹2020rako aurreikusitako jarduera batzuek ez dakarte beraiekin batera aurrekontu espezifikorik, langileen gastuei buruzko I. Kapitulua kontura egiten baitira. Kapitulua hori ez da kontuan hartzen azterketa honetan.

Datu horiekin, ikusten dugu Lan eta Enplegu Saila nabarmentzen dela, aurkeztutako jarduketa bolumenagatik, guztizkoaren % 49,4. Hala ere, aztertutako aurrekontu osoa aintzat hartuta, honako hauek dira genero-ikuspegia lantzen ari diren jarduketan aurrekontu-pisua:

- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila (% 61)
- Lan eta Enplegu Saila (% 59)
- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (% 51)
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (% 39)

Sail bakoitzari zuzendutako aurrekontu-programen azterketa dela eta, generoaren araberako eraginari buruzko txostenak sail bakoitzaren analisi zehatza egin du.

Emakundek egindako aurreko egiaztapen-txostenetan bezala, **arau-esparruan** hau aipatzea proposatzen da: «*Genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurrien ezarpenari buruzko jarraibideak, Gobernu Kontseiluaren Erabakiz onartu zirenak, 2012ko abuztuaren 21ean*». Motiboa da haietan ezarritakoa betetzen duela, nahiz eta egokitze baten bidez izan; funtsean, genero-inpaktua aztertze inprimaki berezia (P-GEN) bete behar da eta aurrekontu-arauaren izaera bereziaren ondorio da.

Lege aurreproiektuaren eta generoaren araberako eraginaren txostenaren testuari dagokionez, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin da, oro har, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Legearen 18.4 artikuluan agintzen denarekin bat etorriz.

Azkenik, aurreko ekitaldietan adierazi dugun bezala, eta horretarako dauden zailtasunak jabetzen garen arren, berriro adierazten dugu komenigarria dela erakunde honi nahitaezko txostena lehenago eskatzea, izapidea behar bezala egin ahal izateko denbora nahikoa izan dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 17.